

GARAI BERRIETARA EGOKITZEKO TEKNOLOGIA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laborategiaren zeregina da, analisi bidez, sagardoaren eta txakolinaren kalitatea zein den jakin eta hori hobetzea.

Gizartea teknologiari begira dago, eta horrek eboluzioa azkarragoa den irudipena ematen digu. Horregatik, aurrera egin dezagun, beharrezkoa da bai gure ingurua, bai gu iraultza horren partaidea izatea. Sagardogintzan berdina gertatzen da: azken urteetan, aurrerapen handiak ematen ari dira, eta horrek kalitatea ere existentziak gogortzen ditu. Garai berrietara egokitze beharra dago, eta horretan laguntzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Fraisoro laborategia dago. «Laborategi publiko bat gara, eta gure lana ebaluaketa analitikoak eta ingurugiro eta landa garapenerako alorrean aholkularitza zerbitzuak ematea da», adierazi du Domingo Merino Fraisoroko Zentroko koordinatzaileak. Adierazi digunaren arabera, zerbitzu horiek, alde batetik, garapenerako departamentuari eta Foru Aldundiko beste departamentuei ematen dizkie; bestetik, berriz, baita beste erakunde batzuei eta euren zerbitzuak eskatzen dituzten banako batzuei ere. Fraisoro laborategiaren zeregin nagusia laginak aztertea da, horien kalitatea hobetzeko asmoarekin.

Zizurkilan dagoen laborategiaren helburua garai berrietara ongi moldatzea dela esan digu Merinok. Horretarako, alde batetik, be-

zeroen behar eta aukerekin bat etortzen saiatzen dira; eta bestetik, berriz, administrazioetik bultzatzen dituzten I+G+B proiektuetan parte hartzen dute. Horrela, sagardogintzaren kasuan, behintzat, garai berrietara egokitze aukera izango da, eta, aldi berean, bezeroari kalitateko sagardoa eskaintzeko aukera izango dute sagardogileek. Azken batean, sagardogileen nahia eta helburua ahalik eta kalitate handiena duen edaria sortzea baita.

Laborategiak urteak daramatza landa ingurumenari dagozkion gaiak aztertzen. Aurtengo txotx garaiarekin batera sagardoa aztertzen hasteko asmoa bazuten ere, Domingo Merinok adierazi du ziurrenik azkenean datorren kanpainarekin batera hasiko dutela. Gainera, urtero egingo den jarduerara dela ere gehitu du. «Jarraipena izango duen jarduera da, bai sagardogileentzat baita txakolin-gileentzat ere. Horretaz gain, analisia kreditatzeko intentzioa ere badugu, nahiz eta horretarako denbora dezenteko behar izango dugun».

Laborategiaren asmoak

Domingo Merino Fraisoroko koordinatzaileak argi adierazitakoaren arabera, laborategiak ikuspegi zehatzak definituak ditu: «Gure arloan erreferente izango den laborategi publikoa izan nahi dugu:



IKERKETA. Fraisoroko laborategian ebaluaketa analitikoak egiten dituzte. FRAISORO

bai gure gaitasun teknikoagatik, bai eraginkortasun ekonomikoagatik eta bai bezeroek dituzten beharretara moldatu eta eskakizunak betetzeko etengabeko hobe-kuntza daukagun politika eraginkorragatik ere», gaineratu du Merinok.

Asmo horiekin batera, labore-

**Bezeroen beharrek
bat egin eta
administrazioaren
I+G+B proiektuetan
parte hartzen dute**

giaren antolakuntzaren kudeaketan pertsonen aktiboki parte hartze nahia ere adierazi du Merinok. «Horretarako, komunikazioaren kultura erabiliko dugu», esan du.

Erakundeak proiektuaren ikuspegiak definituak ditu dagoeneko, eta, horri erantzuteko, berrikuntza, tresneria eta instalakuntzen modernitatean liderrak izatea dute helburu. «Ingurugiroarekiko errespetua eta lan eta gizarte arloko segurtasunaren kultura gure ekintzen parte izango da», gehitu dio koordinatzaileak baieztapenari.

Baloreak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laborategiak zereginak ondo zehaztuta dituela argi dago, baina horiek balore batzuen ildotik biderratu dituzte. Domingo Merinok esandakoaren arabera, Fraisoro-aren ekintzak hainbat portaera pertsonaletan oinarritzen dira. Horietako batzuk bezeroarenganako orientazioa, talde lana, garapen pertsonala, kalitatea eta berrikuntza, arrakastarako norabidea, 'malgutasuna, pertsonen osasuna bultzatzea eta ingurugiroarekiko konpromisoa dira, besteak beste.



LIZEAGA

Astigarraga

Eska ezazu Sagardoa!
eta etiketan LIZEAGA
jarriko balu askoz hobe.

EDAN ETA EMAN
EDATERA